

# HIZKUNTZA-ERALDAKETA ORGANIZAZIOETAN: ESPERIENTZIA ETA MODELIZAZIOA. DINAMIZAZIO SOZIOLINGUISTIKOA GIZARTE PEDAGOGIAREN BAITAN

**Tesiaren egilea:** J. Inazio Marko Juanikorena

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila

**Tesi-zuzendaria:** Felix Basurko Motriko eta Iñaki Pikabea Torrano

**Tesiaren laburpena:**

Tesiaren xedea izan da lan-munduko organizazioetan hizkuntz normalkuntzarako eraldaketari aplikatutako hizkuntza-prozesuen ingeniartzan esku-hartzerako eredu erreferentziala garatzea. Langile-sindikatu batean 10 urtez bideratutako esperientzia baten kasuaren azterketan oinarritu da, eta ikerketa kualitatiboaren estrategia erabili du, hiru fasetan:

1. Landa-lana burutzea *Ekintza-ikerkuntzaren* metodologia aplikatuz.
2. Esperientziaren berreraikuntza, sistematizazio-prozesu bati eta sistematizatutako datuen kontzeptualizaziorako beste prozesu bati jarraituz, *Esperientzien Sistematizazioa* eta *Funtsatutako Teoriaren* metodologiak aplikatuz.
3. Esku-hartzerako eredu baten formulazioa, *Sistemen Enfokearen* metodologia aplikatuz.

Esperientziaren berreraikuntzatik abiatuta, bederatzi indar-ideiaren mapa erai-ki da eta, mapa horrek taxututako eskema kontzeptuarekin oinarrituta, erreferentziatzeko *ENEKuS* ereduaren egitura konfiguratu da. *ENEKuS* ereduaren bederatzi «akzio-gunetan» egituratu da. Akzio-gune bakoitzean, azkenik, aplikazio praktikorako azpieredu operatibo bana diseinatu da.

